

SOINUGELA

Mikel Erentxun

kontzertu hirukoitza Donostian

KANTARIAK VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAN HIRU KONTZERTU ESKAINIKO DITU; URTARRILAREN 31EAN ETA OTSAILAREN 1 ETA 2AN

Testua: **Marta San Sebastián**

Disko baten grabazioarentzat hiru kontzertu. Mikel Erentxun abeslari donostiarrak Victoria Eugenia antzokian hiru emanaldi eskainiko ditu datozen egunotan; zehazki, urtarrilaren 31a, eta otsailaren 1ean eta 2an. Kontzertuak 21.00etan hasiko dira eta sarreak Kutzako ohiko kanaletan erosi ahal izango dira.

Mikel Erentxun funtsezko pertsonaia da gaztelaniaz abestutako poparen barruan eta egundoko eragina izan du geroztiko hainbat talderengan. Victoria Eugenia antzokiak garrantzi handia izan du Mikelen bizitza artistikoan: hantxe eman zuen agurraren kontzertua Duncan Dhuk eta agertoki berean arrakasta itzela lortu zuen Erentxunek, 2007ko apirilean, antzokiaren berrinaugurazio denboraldian. Aparteko hiru kontzertu hauetan, disko bat grabatuko da, zuzenean, eta dokumental bat

filmatuko da Mikel Erentxunen eta hiru emanaldi hauen inguruan.

Mikel Erentxun 1965ean jaio zen Caracasen. 1985. urtean Duncan Dhu talde ospetsua eratu zuen Diego Vasalloarekin batera eta 80. hamarkadako bandarik famatuenetakoa bilakatu zen. Erentxun taldeko ahotsa zen eta hamar disko kaleratu zituzten. Gero, taldea desegin egin zen. 1992. urtean bakarkako ibilbideari ekin zion eta zazpi disko plazaratu ditu. Urte horietan guztietan musikari garrantzitsuen laguntza jaso du; esaterako, Matthew Sweet, Lyd Cole edota Los Atractions de Elvis Costello. Modu berean, Erentxunek beste hainbat artisten diskoetan ere parte hartu du; La Oreja de Van Gogh, Miguel Bosé edota Los Piratas.

Inspirazio iturriengatik galdetu eta zera erantzun izan du musikariak: "Abestiak bakarrik jaio ohi dira: sofán lasai zaudela gitarra batekin, kalean paseatzen

zoazela... halako egoeratan etorri ohi zait kantuaeren lehen ideia. Bat-batean zeure burua sumatzen duzu zerbait abesten. Nik magnetofoi bat eraman ohi dut beti aldean, bidaietan, eta grabatu egiten dut. Grabagailurik ez dudanetan, mugikorretik nire etxera deitu eta doinua erantzungailuan grabatuta uzten dut".

Hainbeste urte musika munduan eta nekatu ez dela dio: "Ez naiz aspertu, eta hori iristen den egunean utziko diot musikari izateari. Kontzertuetan gozatzen jarraitzen dudan artean eta kantuak naturaltasunez irteten diren artean honetan jarraitu nahi dut. Nire erretiroa, egiten dudanak hunkitzen ez nauenean iritsiko da, orduan musikaren exekutibo bat bihurtu naizela ulertuko bainuke. Dena mekanikoezia den egunean, utzi egingo dut". Mikel Erentxunen zaleek, beraz, hiru hitzordu ezberdin dituzte Donostian.



Mikel Erentxunek kontzertu hirukoitza eskeiniko du Donostiako Victoria Eugenia antzokian.